

Sapelarra

FERMIN LEIZAOLA etnologo donostiarrak lairi buruzko hitzaldi bat ematekoa du sasoi ezin ego-kiagoan. Oraintxe dabilta, han eta hemen, baratzezainak, aztarrika, lurrak prestatzen. Lurra iraultzea izan ohi da lan horietan lehen. Laia iraultzaileak museoetan biltzen dira orain, baina iraultze horren beharra etengabekoa da. Bostortza, aitzurra, otaitzurra, ondeaitzurra... Horien dantzak zeru laiatuen eran uzten du lurra. Orduan etorriko zaizkio simaur, luar, errauts, kare... eta era guztietako ongarriak.

Lurra iraultzerako, neguko egun gozoak baliatuz, landare ugari bere egina izango dute baratzea. Tartean sapelarra, *Stellaria media*. Ezaguna da belar hau. Hosto txiki berde biziak ditu; tortotan hedatzen da, herrestari. Tortoen tontoretan lore txuri txikiak irekitzen ditu. Ukitzeko gozoa den bezala, jateko ere hala: ganaduak gustuko du, eta zeuk ere probatu: entsalada, zopa... Txoriak haren haziaren zaleak dira, neuk ez dut oraindik dastatu. Sortzen den tokian, zain bakarretik hedatzen da, eta kendu nahi izanez gero oso erraza da,

luzatutako adarrek ez baitute zainik ematen. Baratze eta soroetako lur landuetan eta bide bazterretako lur harroetan topatuko dugu. Hezetasuna gustuko du, eta nitrofiloa da; hau da, sapelarra non, nitrogenoz aberatsa den lurra han dela adierazten du.

Garai batean, sapelarrak horitza jotzen zuenean hasten ziren lurrak iraultzen. Egutegiak egutegi, benetako sasoi noiz zen erakusten zuen. Izan ere, sapelarra ez da nolanahiko izena.

“Sapia” sortu berria den landarea da. Landare berrien sasoi adieraziko ote du?

Landarearen izerdiari ere sapa deitzen zaio. Sasoi berriko sapa berria datorrela ote dio sapelarrak?

“Txima” edo “kalparra” edo “idien kopetako ilea” ere esan nahi du sapa, lur gainean hedatuz eraikitzen duen tontorrak, kalpar itxura ere badu...

Sapa sapotik etor daitekeela dioenik ere bada, hezetasunera, haren azpira jotzen omen dute...

Sapelarrak gain, izen asko du: sagu-belar (saguaren belarriaren tankerako hostoa...), izar belar (*Stellaria*...), txabarroi, albaraka belar, xoi aska (xori bazka...)...

Ea hizkuntzalariek zer dioten... ■



AIWOK-CC BY SA



Sapelarra, *Stellaria media*. Garai batean, hark horitza jotzean hasten ziren lurrak iraultzen.



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserriarren Kooperatiba
Ugarte Industrialdea 12 Usurbil 20170 Gipuzkoa

Elikagai ekologikoak •
Usurbilgo baserrietako produktuak •
Sagardogintzarako tresneria •
Tratamendu naturalak •
Onttoen haziak... •
Banaketa zerbitzua •

DENDAREN ORDUTEGIA
Astelehenetik-Ostiralera: 9tatik-13tarajeta 16tatik-19.30tara
Larunbatetan: 9tatik-13tara

Tel/Fax.: 943 36 11 14
www.alkartasunausurbil.com • alkartasuna@usurbil.com